

**22. TXALAPARTA FESTA**  
**HERNANI, 2008, MAIATZAK 21, 23, 24**

**MAIATZAK 21**, asteazkena, arratsaldeko 7,30etan. Biteri Kultur Etxean  
**Oreka TX** taldeko Harkaitz Martinez eta Igor Otxoaren eskutik  
**Nomadak TX** filmaren aurkezpena

**MAIATZAK 23**, ostirala, arratsaldeko 7,30etan. Biteri Kultur Etxean  
**Sestaoko Tx Eskoia** taldearen txalaparta emanaldi berezia:  
"HIRU IPUIN, LIBURU BAKARRA.". Sestaoko Tx Eskola, Ezpala, Amazur

Gaueko 12tan, ATXUR tabernan  
**Txalaparta party aparta** (txalaparta+disco emanaldia)

**MAIATZAK 24**, larunbata. Ezkiaga pasealekuan (Tilos)  
Arratsaldeko 6etatik aurrera

**TXALAPARTA FESTA**

**TXALAPARTA ERROMERIA**

Txalaparta saio libreak  
Sagardo banaketa

HERNANI Musika Eskolako Alboka, Dultzaina,  
Trikitixa eta Txistu taldeak kale bueltan

Arratseko 9tan **HERRI AFARIA** eta ondoren

**TXALAPARTA JAIALDI NAGUSIA**

Bertsolariak: Hernaniko Bertso Eskola.

**Zuaznabar** eta **Goikoetxea** txalapartari familietako txalapartariak

Araba: **Arabako txalapartariak**

Iparraldea: **Kirikittun Amikutzeko txalapartariak**

Nafarroa: **Bianako Txakozu txalaparta taldea**

Bizkaia: **Sestaoko Tx Eskola taldea**

Gipuzkoa: **Gipuzkoako txalapartariak**

HERNANI Musika Eskolako **Ttakun ttan ttakun** taldea

*Txalaparta Festa gunean "txalaparta merkatu txikia" irekia egongo da (grabaketak, liburuak, bideo eta DVDak, materiala,...)*

*Oharra: eguraldi txarra egingo balu, larunbateko ekintza guztiak Atsegindegi plaza estalian egingo lirateke*

**Antolatzaileak:**

HERNANI Musika Eskola Publikoa

HERNANI Musika Eskolako **TTAKUN TTAN TTAKUN TALDEA**

**Babeslea:**

Hernaniko Udala

**Laguntzaileak:**

ORONA, Hernaniko Sagardotegiak,

irudiART.com soluciones audiovisuales, Herri Musikaren Txokoa

# 22. txalaparta festa

maiatzak  
21/23/24

Hernani 2008



Erbetegi-Etxeberri txalaparta-etxearen agurra  
2007/10/07

## 22. TXALAPARTA FESTA HERNANI, 2008, MAIATZAK 21, 23, 24

Hernani Musika Eskola Publikoarekin batera eta honen zati bat delarik, 1985-1986 ikasturtean sortutako Hernaniko Txalaparta Eskolak berehala ekin zion musika eta soinu-tresna honek behar zuen ezagupen, erakustearen eta zabalkundearen aldeko Eskola barruko nahiz kanpoko lan eta ekintzei. Horrela, klasetako ikasketa egitaraua osatze lanez gain, bestelako jardunetan murgildu zen.

Horrela, 1986-1987 Eskolaren bigarren ikasturtean, beste ekintzen artean Eskolako irakasle eta ikasleek antolatuturik eta Hernaniko Udalaren babesarekin, 1987ko apirilaren **TXALAPARTA FESTA**ren ibilbidea hasi zen.

Geroztik, urtez urte eta hutsunerik gabe, Txalaparta Festetan parte hartu dutenek edizioz edizio txalaparta inguruko arlo eta mota ezberdinez osatutako ekarpen aberatsa egin dute.

Aurreko hogeita bat urteetan izan den bezala, aurtengo maiatzaren 21, 23, eta 24an, Hernanin **22. Txalaparta Festa** ospatuko da, beti bezala HERNANI Musika Eskola Publikoak eta bertako TTAUN TTAN TTAUN txalaparta taldeak antolatuturik.

Edizio honetan berrikuntzak aurkezten badira ere, aurreko edizioen ildo beretik jarraitzen du, hau da, txalapartaren arlo ezberdinak aztertzen eta aurkezten.

Lehen egunean, asteazkena **maiatzaren 21ean**, arratsaldeko 7:30etan. Biteri Kultur Etxean: **Oreka TX** taldeko Harkaitz Martinez eta Igor Otxoak **Nomadak TX** filmaren aurkezpena egingo dute. Txalaparta ... pertsona eta kultura desberdinak elkartzeko tokia.

Bigarren egunean, ostirala **maiatzaren 23an**, txalaparta emanaldi berezien eguna den horretan, arratsaldeko 7:30etan Biteri Kultur Etxeko areto nagusian **Sestaoko TX Eskola** taldearen "**Hiru ipuin, liburu bakarra**" emanaldia.

Gaueko 12tan, **ATXUR** tabernan txalaparta party aparta (txalaparta + disko)

Larunbata, **maiatzak 24** hirugarren eta azken egunerako honako egitaraua antolatu dugu:

Arratsaldeko 6etatik aurrera **FESTA NAGUSIA**. Bertan, Hernaniko Sagardotegien laguntzarekin sagardo banaketa eskainiko dugu. HERNANI Musika Eskolako dultzainero, txistulari, albokari eta trikitilari taldeak inguruko kale eta plazetan festa giro aparta jarriko dute.

**TXALAPARTA ERROMERIA**, hau da, txalaparta saio libreak bertan izango ditugu, etortzen diren txalapartari guztiei elkarri eta nahasturik jotzeko aukera emanez.

9etan **HERRI AFARIA** eta ondoren Hernaniko Bertso Eskolako bertsolariek hasiera emango diote **TXALAPARTA FESTA**ren saio nagusiarri.

Segidan **Zuaznabar** eta **Goikoetxea** txalapartari familietako txalapartarien saioak izango dira gaueko Txalapartaldiaren abiapuntua. Hauen ondoren Euskal Herriko eskualde guztiak ordezkatzeko dituzten txalaparta taldeek eta Tarragonako **Txala** taldekoek duten musika onena eskainiko digute.

Halako egitaraua ikusirik, txalaparta zaleok ezin dugu hutsik egin eta Hernanira agertu behar dugu txalapartaz osatutako deialdi honetara.

HERNANI Musika Eskola Publikoa  
Ttakun ttan ttakun txalaparta taldea  
Atzieta 4 / 20120 Hernani  
Tel. 943 337050  
Email: jm-beltran@hemani.net

## SESTAOKO TX TALDEA - HIRU IPUIN, LIBURU BAKARRA -

**Maiatzak 23, ostirala  
arratsaldeko 7:30etan  
Biteri Kultur Etxean**

Txalaparta Festan agertzen zaigun lagun talde hau gogo bakar batek bildu du: Sestaoko Tx Eskolak. Hots, Sestaon, eta Ezkerralde osoan, txalapartaz gozatzeko aukera nahi duenari eskaintzea da bizkaitar gazte hauen ametsa, eta horren alde dihardute. Baina badute beste gogorik ere, egitasmo ezberdinak bultzatzen dituzten gogo ezberdinak, planeta berberaren ilargi ezberdinak. Satelite horietako hiru ekarri dizkigute oraingoan:

**Sestaoko Tx Eskola.** Txalapartaren bidean hasi berri diren ikasle hauek zertxobait prestatu omen dute lehenengo aldiz.

**Ezpala.** Ipuin honen narratzailea ez da txalaparta soilik izango, albokak eta trikitixak ere badute zer esateko.

**Amazur.** Txalaparta eta larruak. Zurak, harriak eta burdinak, djembe eta abarreko perkusio tresnen laguntza izango dute bat-batekotasun jolasean.

Taldearen aurkezpena:

*Txalapartaren kantak ttakuna du izar,  
Txalapartaren kantak ttakuna du izar.  
Bat-batekotasuna oinarritzko indar.  
Ai oi ei, makilak azkar,  
.ondo jotzen badugu zuk txalotu behar.*

*Aupa lagun guztiok, hau da aurkezpena,  
Aupa lagun guztiok, hau da aurkezpena.  
Ea asmatzen duzuen gure izena.  
Ai oi ei, bada frogapena  
Sestaon ere txalaparta bizirik dela.*

Sestaon ere bizirik da txalaparta 1990 urtean Sestaoko Tx Eskola izenpean elkarturiko lauzpabost gazteren erruz. 18 urte hauetan 350 bat emanaldi gauzatu dute, mota askotako erakundeei esker: herri anitzeko udaletxeak eta jai batzordeak, kultura erakundeak, ikastolak eta ikastetxeak, erakunde ekologistak, politikoak, enpresak, tabernak... Gehiengoak Ezkerraldean edo Sestaon bertan gauzatu bada ere, Bizkaiko eta Euskal Herriko hainbat herri eta auzotatik igaro dira, baita atzeritik ere: Errioxa, Kantabria, Asturias, Katalunia, Salamanca, Guadalajara, Leon, Britainia, Portugal, Belgika...

Jotzeko aitzakiak ere mota askotakoak izan dira: kirol omenaldiak, inaugurazioak, euskara edo euskal kulturaren aldeko ekimenak, herri edo auzoetako jaiak, kontzertu didaktikoak, ezkontzak, hiletak...

Beste taldeekiko elkarlanak gauzatzeko aukera ugari izan dute, txalapartaz lagundu dituzte beste disziplina batzu: olerkaritza, antzerkia, dantza, perkusio afrikarra, tekno musika...

Ibilbide honetan, haien ikasleekin batera, Bizkaia ordezkatu dute hainbat txalaparta jaialditan: Trapagaran, Errekalde, Santutxu, Areatza, Izarra, Ozaeta, Urretxu eta Uharteraino Sestao hitza eraman diete beste txalaparta joleei. Urteroko Gasteizko Tx Maratoian bostetan izan dira, bostetan Gaiartako Sagardo Egunean, eta aurtengoarekin seitan Hernaniko Tx Festan. Sei alditan gauzatu dute Sestaoko Tx Eguna, Sestaoko herri-tarrei beste txalapartariak hurbildu nahian.

150 baino gehiago izan dira haien gelatik igaro diren lagunak, herriko gazteak gehiengoak direlarik. Guztiak bide honetan kilometro kopuru berdina bete ez badute ere, Sestao ttakuna zer den ondo dakien herria dela esan dezakegu.